

ERMUKO ZERAMIKA ESKOLA: BUZTINETIK SORTUZ

Ermuko Zeramika Eskola gure herriko eskeintza kulturalaren aintzindarietako bat dugu, Antzerki Tailerrarekin batera.

1980an sortu zenetik, 500 pertsonatik gora pasatu dira eman diren ikastaroetatik, eta badira, banaka batzuk izan arren, bertan ikasitakoa euren lanbide bihurtu dutenak.

16 urte luze hauetan, eskolak egoitza desberdin asko ezagutu du. Lehenengo urtea "Ongarai" ikastetxean eman ondoren, jende askok gogoratuko duen Erdikokaleko lokalera pasatu zen. Han 10 urtez egon ostean Zeharkalera urte batez, eta

handik duela lau urtetik erabiltzen duen "Gure-Etxea"ko lehenengo solairura.

Gaur egun Zeramika Eskolan lau taldek dihardute buztinak eskeintzen dituen aukerak deskubritzen eta lantzen. Hauetako bi umez osatuta daude eta bostetatik sei 1'erdietara bata eta sei 1'erdietatik zortzi 1'erdietara bestea aritzen dira astearte eta ostegunetan.

Helduei egiten zaien eskeintza are zabalagoa, hauek astelehen, asteazken eta ostegunetan lauetatik seietara edo seietatik zortzietara ematen diren ikastaroetan parte hartzeko aukera dute eta.

Angel Gil, eskolako irakaslea eta arduradunak azaltzen duenez, taldeak 12 edo 15 pertsona bitartekoak izan arren, ikaste prozesua banaka burutzen da, ikasle bakoitzak bere erritmoa eta estiloa aukeratuz.

Ikastaroak hiru urtetarako planteatuta daude, hasierakoa eta teknika ezberdinen ezagutza, hauetan sakontzea, eta hirugarrenean Ermuko Eskolaren "bereztasuna", eskultura. Angel Gilen hitzetan "eskola bakoitzak berea dauka, eta jende asko etortzen da guregana eskultura dela eta".

MANUEL MORENO



UGARRO

AHOLKULARITZA FISKAL ETA JURIDIKOA

Zubiaurre, 27. 177 Apdoa.
ERMUA



Mutua General de Seguros

Seguru eta Reaseguruen Elkarte Mutua
1907 urtean sortua

Tfnoa: (943) 17 43 44
Faxa: (943) 17 54 58

CERVECERIA



Z
U
T
I
K

GARAGARDOTEGIA

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
bereztasuna

ELEKTRIZITATEA

ZUBIAURRE

ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61
48260 ERMUA

E I AKADEMIA
ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 38 24



ARCOS

M^a LUISA RODRIGUEZ

Zeharkalea, 12 -
Entlo. - 1. atea

Tlf. (943) 17 63 81

MASAIA TERAPEUTIKOA ETA ESTETIKA

☪ DRENAIA LINFATIKOA
☪ SAUNA
☪ SOLARIUM

☪ PRESOTERAPIA
☪ ELEKTROLIPOCISIA
☪ AURPEGIKO LIFTUA